

## 5.- PLASTIKA ETA IKUS ADIERAZPENA

### 5.1.- DATU BILKETAREN EZAUGARRIAK

#### 5.1.1.- Inkesta

Plastika eta Ikus Adierazpen inkestak bi azpi-proba ditu eta Likert motako 22 itenez osatuta dago. Lehendabizikoak 5 item dauzka eta arloaren kompetentzia orokorrei dagokie. Beste 17 itemak berriz, arloaren kompetentzia espezifikoei dagokie.

Aurkeztutako kompetentzia bakoitzeko itemak erantzun aukera ditu. Erantzuteko, arloan adituak direnei kompetentzia bakoitzaren balorazioa egitea eskatu zaie. Balorazio hori, 1etik 5era doan eskalan egin behar izan dute, aukera bakoitzaren esanahia ondokoa izanik:

- 1 = Hutsala
- 2 = Garrantzi gutxikoa
- 3 = Garrantzi ertaina
- 4 = Garrantzi handikoa
- 5 = Behar beharrezkoa

Inkesten fidagarritasuna Cronbachen Barneko Sendotasun Alfa Koefizientearen bitartez kalkulatu da, ondoko taulan azaltzen diren balioak lortuz. Ikus daitekeenez balio hori eskasa da Kompetentzia Orokorretan eta onargarria Kompetentzia Espezifikoetan.

	Cronbachen Alfa	Ítem kopurua
<b>Kompetentzia orokorren</b> azpi-proba	0,737	5
<b>Kompetentzia espezifiko</b> azpi-proba	0,901	17

Kompetentzia orokor eta espezifiko bakoitzaren balorazio kuantitatiboaz gain, balorazio kualitatiboa egitea ere eskatu zen adituei, ondoko koadroan agertzen den gidoia jarraituz:

**1.-Plastika eta Ikus Adierazpena arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**

*(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)*

**2.-Iruzkinak**

*(Emandako balorazioari buruzko arrazoen azalpena, proposamenak...)*

**3.-Inkesta erantzuteko erabilitako bideak**

*(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)*

**5.1.2.- Partehartzaileak**

Jarraian, laginaren aldagaien ezaugarriak azaltzen ditugu, ondoren, aldagai independente gisa, azpitale bakoitzaren konparaketa egiteko erabiliko ditugunak

**Ikastetxe mota**

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	1 ikastola	44	35,8	35,8	35,8
	3 kristau eskola	79	64,2	64,2	100,0
	Denera	123	100,0	100,0	

**Lurraldea**

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	1 Araba	12	8,5	8,5	8,5
	20 Gipuzkoa	58	40,8	40,8	49,3
	31 Nafarroa	5	3,5	3,5	52,8
	48 Bizkaia	47	33,1	33,1	85,9
	Iparralde	20	14,1	14,1	100,0
	Denera	142	100,0	100,0	

**Hizkuntz eredia**

		Maiztasuna	Ehunekoa	Baliozko ehunekoa	Ehuneko metatua
Baliozkoak	1,00 A	25	20,3	25,3	25,3
	2,00 B	20	16,3	20,2	45,5
	3,00 D	54	43,9	54,5	100,0
	Denera	99	80,5	100,0	
Galduak	Sistema	24	19,5		
Denera		121	123	100,0	

**5.2.- ARLOKO KOMPETENTZIA OROKORRAK**

**Item 1.-** Errealitatean, naturan nahiz artelanetan ageri diren elementu formalak identifikatzeko eta aztertzeko gai izan behar dute, balio estetikorik irizpideak lortzeko, kritikoak izateko eta beren lanei nahiz besteenei buruzko iritziak emateko eta horiek ikusiz gozatzeko.

**Item 2.-** Oinarritzko esku trebetasunak menderatzeko gai izan behar dute, teknika plastikoak erabiltzeko eta buruan dituzten irudiak lan plastiko burutu izateko behar den trebetasuna lortzeko.


**Item 3.-** Egungo gure kulturaren zati handi bat osatzen duten irudiei (argazkia, bideoa, anagramak...) buruzko egungo hizkuntza irakurtzeko, balioesteko, kritikatzeko eta erabiltzeko gai izan behar dute, horien edertasun formalaz jabetzeko eta mezuaren edukia ulertzeko.

**Item 4.-** Hizkuntz plastikoak (marraztea, margotzea, modelatzea...) eta horiei dagozkien teknikak ezagutu behar dituzte horiek askatasunez erabiltzeko moduan, errealitateari buruz dituzten sentimenduak, ideiak edota sententzioak adierazteko eta besteei horiek komunikatzeko.

**Item 5.-** Artearen historiako eta gaur egungo artearen estilo, artista eta lan nagusiak –unibertsalak nahiz Euskal Herrikoak- ezagutzeko gai izan behar dute, egungo kultura ulertzeko eta bertan integratuta sentitzeko, baita adierazpen plastikoaren balioa gehiago balioesteko ere.


**5.2.1.- Konpetentzia orokorrak eta ikastetxe mota**

ikastetxe mota		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5
ikastola	Batazb.	4,39	4,65	4,32	4,49	4,14
	N	44	43	44	43	44
	Desb. tip.	,722	,573	,639	,668	,852
kristau eskola	Batazb.	4,08	4,28	4,01	4,28	3,80
	N	79	79	79	79	79
	Desb. tip.	,829	,816	,792	,715	,838
Denera	Batazb.	4,19	4,41	4,12	4,35	3,92
	N	123	122	123	122	123
	Desb. tip.	,803	,758	,753	,703	,855




## 5.2.2.- Konpetentzia orokorrak eta lurraldea

lurraldea		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5	ko6
Araba	Batazb.	4,25	4,25	3,92	4,33	3,92	4,25
	N	12	12	12	12	12	12
	Desb. tip.	1,215	1,055	1,165	,651	,900	1,215
Gipuzkoa	Batazb.	4,19	4,42	4,14	4,47	3,91	4,19
	N	58	57	58	57	58	58
	Desb. tip.	,805	,731	,634	,710	,904	,805
Nafarroa	Batazb.	4,40	4,40	4,00	4,60	3,80	4,40
	N	5	5	5	5	5	5
	Desb. tip.	,548	,894	,707	,548	,837	,548
Bizkaia	Batazb.	4,17	4,45	4,15	4,19	3,96	4,17
	N	47	47	47	47	47	47
	Desb. tip.	,702	,717	,780	,711	,806	,702
Iparraldea	Batazb.	3,00	4,00	5,00	4,00	3,00	3,00
	N	1	1	1	1	1	1
	Desb. tip.	.	.	.	.	.	.
Denera	Batazb.	4,19	4,41	4,12	4,35	3,92	4,19
	N	123	122	123	122	123	123
	Desb. tip.	,803	,758	,753	,703	,855	,803



**5.2.3.- Konpetentzia orokorrak eta hizkuntz eredua**

hizkuntz eredua		ko1	ko2	ko3	ko4	ko5
A	Batazb.	4,00	4,28	3,96	4,20	3,88
	N	25	25	25	25	25
	Desb. tip.	1,041	,936	1,060	,645	,726
B	Batazb.	4,10	4,25	4,15	4,35	3,45
	N	20	20	20	20	20
	Desb. tip.	,718	,786	,671	,745	,945
D	Batazb.	4,31	4,55	4,19	4,42	4,04
	N	54	53	54	53	54
	Desb. tip.	,748	,637	,646	,719	,868
Denera	Batazb.	4,19	4,42	4,12	4,35	3,88
	N	99	98	99	98	99
	Desb. tip.	,829	,759	,773	,705	,872



**5.3.- ARLOKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK**

**Item 1.-** Plastikaren bidez adierazteko tresnak eta materialak behar bezainbesteko trebetasunez erabiltzea.

**Item 2.-** Plastikaren bidez, sentimenduak, sentsazioak, ideiak edota era askotako espazio kontzeptuak (irekita / itxita, beteta / hutsik) adieraztea.

**Item 3.-** Naturalean oinarrituz marraztea, kopiatu nahi den errealitatea behatuz eta xehetasunen eta osotasunaren arteko erlazioa eta proportzioa kontuan hartuz.

**Item 4.-** Marrazketa teknikoaren hizkuntz ulertzea eta erabiltzea hauek guztiak egiteko: problema geometrikoak ebazteko, planoak marrazteko, objektu baliagarriak diseinatzeo eta piezen bisten marrazkiak egiteko (aurretiko bista, profila eta oina).

**Item 5.-** Ihespuntua erabiltzea, zenbait motatako espazioak marrazteko eta perspektiba jarduerak egiteko.

**Item 6.-** Koloreak nahasten jakitea, zenbait tonu eta kolore lortzeko.

**Item 7.-** Kolorea erabiliz margotzea, bai errealitatea irudikatzeko, bai errealitatea alde batera utzita adierazteko.

**Item 8.-** Zenbait material eta testura erabiliz, lan abstraktuak nahiz figuratiboak egitea, lan lau soilekin ez bezalako sentsazioak lortzeko.

**Item 9.-** Erraz manipulatzeko materialak erabiliz (kartoia, okume xafla...), maketak egitea, objektu sinpleak edo lege fisikoren batean oinarritutako gailu txikiak egiteko.

**Item 10.-** Erabilitako elementuak baliatuz eta esperimintatuz, irudi bolumentrikoak egitea, irudimen konstruktiboa eta bolumentria sena garatzeko.

**Item 11.-** Buztina trebetasunez erabiltzea, eta, hori modelatuz, era askotako irudiak, ontziak edota objektuak egitea.

**Item 12.-** Argazkiak ateratzea, eta errealitatea harrapatzeo eta errebelatua egiteko prozedura egokiak erabiltzea.

**Item 13.-** Iragarkiak, kartelak eta horma irudiak egiteko zer tresna (ordenagailua, makina digitalak...) eta hizkuntz dauden jakitea, eta horiek erabiltzea, ideiak, gertaerak edota publizitate mezuak komunikatzeko.

**Item 14.-** Zenbait motatako artileak, hariak eta beste material batzuk ehuntzea, ehun bolumenak lortzeko.


**Item 15.-** Mendebaldeko munduko historian, arte mugimendu eta autore nagusiak zein diren jakitea: Historiaurrea, Grezia, Erroma, Erromanikoa, Gotikoa, Errenazimentua, Barrokkoa, Neoklasizismoa, Impresionismoa, Kubismoa eta XX. mendeko artea.

**Item 16.-** Euskal Herriko artearen eta autore nagusien berri izatea; XX. mendekoen berri, bereziki.

**Item 17.-** Plastika eta Ikus Adierazpen Arloaren balorazioa oro har

### 5.3.1.- Konpetentzia espezifikoko eta ikastetxe mota


ikastetxe mota		kes 1	kes 2	kes 3	kes 4	kes 5	kes 6	kes 7	kes 8	kes 9	kes 10	kes 11	kes 12	kes 13	kes 14	kes 15	kes 16	kes 17	
ikastola	Batazb.	4,67	4,42	4,42	4,49	4,19	4,63	4,49	4,38	4,07	4,28	3,76	3,64	4,30	3,40	3,98	4,23	4,41	
	N	43	43	43	43	42	43	43	42	43	43	42	42	43	42	43	43	43	41
	Desb. tip.	,566	,698	,663	,703	,707	,655	,736	,731	,799	,701	,878	1,008	,803	1,149	,913	,782	,706	
kristau eskola	Batazb.	4,38	4,14	3,89	4,24	3,91	4,42	4,05	3,81	3,42	3,75	2,97	3,04	3,76	2,49	3,67	3,76	4,11	
	N	79	79	79	79	78	77	78	79	79	79	78	78	79	79	79	79	79	76
	Desb. tip.	,722	,812	,734	,788	,825	,714	,866	,802	,942	,854	,837	,959	1,003	,890	,957	,880	,624	
Denera	Batazb.	4,48	4,24	4,07	4,33	4,01	4,49	4,21	4,01	3,65	3,93	3,25	3,25	3,95	2,81	3,78	3,93	4,21	
	N	122	122	122	122	120	120	121	121	122	122	120	120	122	121	122	122	117	
	Desb. tip.	,683	,783	,752	,765	,794	,698	,846	,822	,944	,840	,928	1,015	,969	1,075	,949	,874	,667	



5.3.2.- Konpetentzia espezifikokoak eta lurraldea


ikastetxe mota		kes 1	kes 2	kes 3	kes 4	kes 5	kes 6	kes 7	kes 8	kes 9	kes 10	kes 11	kes 12	kes 13	kes 14	kes 15	kes 16	kes 17	
Araba	Batazb.	4,33	4,33	4,08	4,33	3,92	4,25	4,08	3,83	3,25	4,17	3,42	3,83	3,75	2,92	3,50	3,75	4,27	
	N	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	12	11
	Desb. tip.	1,155	,888	,900	,888	,996	1,215	1,240	,835	,866	,577	,900	,937	1,215	1,165	1,087	,866	,786	
Gipuzkoa	Batazb.	4,55	4,31	4,05	4,33	4,05	4,53	4,33	4,00	3,71	3,93	3,19	3,25	4,03	2,91	3,72	3,88	4,27	
	N	58	58	58	58	57	58	57	57	58	58	57	57	58	57	58	58	58	56
	Desb. tip.	,567	,777	,759	,781	,811	,627	,664	,886	,918	,814	,990	1,057	,917	1,005	,894	,900	,646	
Nafarroa	Batazb.	4,80	4,20	4,40	4,60	4,20	4,20	4,20	4,40	4,00	3,80	3,80	3,40	4,20	2,80	4,20	4,00	3,80	
	N	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	5	
	Desb. tip.	,447	,837	,548	,894	,447	1,095	,837	,894	1,000	,837	1,095	1,140	,837	1,643	,837	1,000	1,095	
Bizkaia	Batazb.	4,40	4,13	4,06	4,30	3,96	4,53	4,09	4,02	3,64	3,89	3,22	3,09	3,87	2,66	3,87	4,02	4,18	
	N	47	47	47	47	46	45	47	47	47	47	46	46	47	47	47	47	47	45
	Desb. tip.	,681	,769	,734	,720	,759	,548	,929	,737	,987	,938	,841	,939	,992	1,089	,992	,847	,614	
Iparraldea	Batazb.	4,00	2,00	3,00	2,00	4,00	5,00	5,00	4,00	3,00	3,00	2,00	3,00		3,00	1,00	3,00	5,00	
	N	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1		1	1	1	1	
	Desb. tip.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.	.		.	.	.	.	
Denera	Batazb.	4,48	4,22	4,07	4,31	4,01	4,50	4,21	4,01	3,64	3,93	3,24	3,25	3,95	2,81	3,76	3,92	4,22	
	N	123	123	123	123	121	121	122	122	123	123	121	121	122	122	123	123	118	
	Desb. tip.	,682	,805	,755	,791	,791	,697	,845	,818	,942	,841	,931	1,011	,969	1,071	,978	,874	,668	





5.3.3.- Konpetentzia espezifikoak eta hizkuntz eredua

hizkuntz eredua		kes1	kes2	kes3	kes4	kes5	kes6	kes7	kes8	kes9	kes10	kes11	kes12	kes13	kes14	kes15	kes16	kes17
A	Batazb.	4,28	4,12	4,16	4,32	3,92	4,32	4,04	3,76	3,36	3,92	3,17	3,17	3,60	2,52	3,52	3,68	3,96
	N	25	25	25	25	24	25	25	25	25	25	24	24	25	25	25	25	24
	Desb. tip.	,936	,781	,746	,802	,929	,900	,978	,663	,907	,759	,816	,963	1,118	1,046	,963	,748	,690
B	Batazb.	4,55	4,10	3,75	4,45	3,95	4,45	3,85	3,60	3,35	3,65	2,60	2,65	3,65	2,30	3,25	3,30	3,89
	N	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	20	19
	Desb. tip.	,605	,852	,639	,759	,945	,605	,745	,940	,745	,813	,940	,875	,875	,801	,967	,923	,658
D	Batazb.	4,59	4,31	4,15	4,37	4,11	4,55	4,38	4,17	3,91	4,02	3,51	3,55	4,26	3,13	3,94	4,17	4,37
	N	54	54	54	54	53	53	53	53	54	54	53	53	54	53	54	54	52
	Desb. tip.	,599	,748	,833	,784	,725	,667	,790	,802	,896	,921	,912	,972	,805	1,127	,899	,795	,627
Denera	Batazb.	4,51	4,22	4,07	4,37	4,03	4,47	4,18	3,95	3,66	3,92	3,24	3,27	3,97	2,81	3,70	3,87	4,17
	N	99	99	99	99	97	98	98	98	99	99	97	97	99	98	99	99	95
	Desb. tip.	,705	,777	,786	,777	,822	,721	,854	,830	,905	,865	,955	1,005	,952	1,100	,963	,877	,679



## 5.4.- EMAITZEN LABURPENA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

### 5.4.1.- Emaizten laburpena

#### Konpetentzia orokorrak

Plastika eta Ikus Adierazpen arloan planteatutako 5 konpetentzia orokorretatik, denak oso ondo onartuak izan dira kontsultatutako irakasleengandik, 4 baino altuagoak diren balioak lortuz (balioak 1etik 5era izan daitezkeela kontutan hartu behar da). Salbuespena 5 konpetentzia orokorra da. Kasu honetan balorazioen batezbestekoa 3,92 da. Beraz, konpetentzia hau berrikusi beharko litzateke, alegia, barnean sartzeko, aldatzeko edo alde batera uzteko posibilitateak aztertu beharko lirateke.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (ikastetxe-mota, lurraldea eta hizkuntz eredua), konpetentzia orokorren balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipatu daiteke:

- Lurralde desberdinetako irakasleen artean ez dago diferentzia estatistikorik konpetentzia orokorre emandako balorazioetan.
- Ikastetxe-motaren arabera, konpetentzietan egindako balorazioak estatistikoki adierazgarriak dira orokorki. Aurretiko tauletan ikus daitekeen bezala, 1, 2, 3 eta 5 konpetentziak ikastoletako irakasleengandik hobeto baloratuak izan dira kristau eskoletako irakasleengandik baino. Dena den, nahiz eta kristau eskoletan balorazioak baxuagoak izan, balorazio horiek 4 baino altuagoak direla (5 konpetentzia orokorrean izan ezik) azpimarratu behar da.
- Hizkuntz eredu desberdinetako ikastetxeen irakasleek egindako balorazioei begiratuz gero, aurretiko tauletan ikus daitekeen moduan, 5 konpetentziaren kasuan bakarrik diferentzi adierazgarriak ematen dira. Konpetentzia horrek balorazio altuago jaso du D ereduari diharduten irakasleen eskutik, eta ondoren A eta B ereduengandik (hauen balorazioa 4 baino gutxiago izan da).

#### Konpetentzia Espezifikoak

Plastika eta Ikus Adierazpen arloko 17 konpetentzia espezifikoei buruz irakasleek egindako azterketaren emaitzek, 9 bakarrik ondo onartuak izan direla erakusten dute, zeren eta kasu hauetan batezbesteko balioak 4 baino altuagoak dira. Beraz, berrikuspenera behar duten 8 konpetentzia badaude (9, 10, 11, 12, 13, 14, 15 eta 16 konpetentziak). Kasu hauetan lortutako batezbesteko balioak 4 baino baxuagoak izan dira eta honek irakasleen aldetik onarpen orokorra ez du bermatzen.

Aztertutako hiru aldagaien arabera (ikastetxe-mota, lurraldea eta hizkuntza eredua), konpetentzia espezifikoen balorazioetan antzeman ditugun diferentzietan dagokienez zera aipatu daiteke:

- Lurralde desberdinetako irakasleen artean ez dago diferentzia estatistikorik konpetentzia espezifikoei emandako balorazioetan.
- Ikastetxe-motaren arabera, egindako balorazioak estatistikoki adierazgarriak dira kasu gehienetan. Aurretiko tauletan ikus daitekeen bezala, 1, 3, 7, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 16 eta 17 konpetentzia espezifikoak ikastoletako irakasleek balorazio altuagoak egin dituzte kristau eskoletako irakasleek baino. Gainera, 11, 12, 14 eta 16 konpetentzietan eta bi ikastetxe-motetan 4 baino balorazio txikiagoa izan dela azpimarratu behar da. (Diferentziak ematen dituzten ia konpetentzia guztietan, kristau eskolen batezbesteko balorazioa 4 baino txikiagoa izan da.)
- Era berean, hizkuntz eredu desberdinetako ikastetxetako irakasleek egindako balorazioei begiratuz gero, 7, 8, 9, 11, 12, 13, 14, 15, 16 eta 17 konpetentzia espezifikoen kasuan diferentzia adierazgarriak ematen dira. Kasu hauetan guztietan, D ereduari diharduten irakasleek konpetentziak hobeto baloratu dituzte (eta ondoren A eta B). Hizkuntz eredu guztietan ia konpetentzia guzti hauetan 4 baino balorazio baxuagoa azaldu dela azpimarratu egin behar da.

### 5.4.2.- Hobekuntza proposamenak

Orokorrean, arlo honen planteamendu eta antolaketa oso ondo baloratu izan bada ere (48-1), hainbat ñabardura azaldu dizkigute batez ere konpetentzia espezifikoei dagokienez, bai eta beste hainbat arlotan agertu bezala, arlo honen lanketa ez litzatekeela soilik bigarren hezkuntzara mugatu behar, irakaskuntza osoa besarkatu beharko lukeela (115-3, 146-3), eta egun ematen zaion denbora (32-1, 33-1, 44-1, 48-1, 56-1, 60-1, 63-3, 70-3, 75-3, 83-3, 91-3, 95-3, 100-3, 135-3, 138-3, 142-3, 145-3, 151-3, 155-3, 157-3, 165-3) egokitu beharko litzatekeela, ikasle kopurua mugatu (75-3) eta orokorrean ematen zaion garrantzia baina handiagoa eman. Premia handikoak dira baliabide eta azpiegitura (32-1, 41-1, 56-1, 60-1, 62-3, 100-3, 145-3, 151-3). Era berean, irakasleen prestakuntza edo espezialistak (115-3, 146-3) eta ikasmaterialak (75-3) beharko lirateke, egun aipatu gabekoa hauek guztiak daudelako eta proposamena oso zabala eta osoa izanik (83-3, 87-3, 100-3, 146-3), ezinbesteko gertatzen delako helburuak bete ahal izateko.

Beste maila batean, hainbat ekarpen egiten dizkigute lehentasunak finkatzerakoan, eta hau dela eta aipatzen digute emozioekin lotutako jardueraren denez, haurrak beharko lukeela bere heziketaren protagonista nagusia izan (35-1, 151-3), eta auto-adierazpen sortzaile eta askea gehiago bultzatu (23-1,

32-1, 33-1, 129-3), irudimena landu, hizkuntza plastikoen bidez komunikatzen, gozatzen gaituz (23-1, 68-3, 214-1, ) bai eta taldetasunari garrantzia handiagoa eman (53-1), gogoan izanik ikasleen aniztasuna, ez dutela guztiek sormenerako gaitasun bera (129-3, 148-3)

Azkenik badaude eduki edo gai batzuk beste multzo edo jakintza alorretan landu beharko liratekeenaren iritzia azaltzen dutenak (24-1, 16-1, 55-1)

Hobekuntza proposamenetan, honako gai hauek ere txertatzea iradoki dituzte galdeketak erantzun dituztenak eta adituak:

- Emakume artistak: Dora Salazar, Marta Cárdenas, Itziar Okariz,...(37-1)
- Materialen birziklapena (60-1)
- Artearen historia Euskal Herrian (106-6, 151-3), XX. Mendea eta abangoardia (1-1, 29-1)
- Ordena eta txukuntasuna lanean (92-3)
- Zinea, argazkia eta bideoa artelan bezala ulertuta (24-1, 32-1)
- IKT-ei garrantzia handiagoa eman, ordenagailu bidezko baliabide berriak erabili (26-1, 122-3),
- Informazioaren bilaketa (museoetara joatea, pinakotekak, obren azterketak,...)(122-3)
- Argia, argiztapena, itzala, bolumen efektuak, inguruko testura grafiko eta plastikoak (53-1, 107-3), eskultura, modelatua, eraikuntza (29-1)
- Estanzazio teknikak (monotipoa, linoleuma, xilografia,...)(7-1)

Balorazio hauek egiteko, batzarrak, talde hausnarketa, ikastetxeko esperientzia eta errealitatearen behaketa erabili dute erantzuleak.